

OINARRIAK: 2026ko Inauterietako kuadrillen kalejirako lehiaketa

Azken urteotan sortutako giroari erantzuteko eta inauterietako egitarauan ekitaldi berri bat eskaintzeko, Ermuko Udalak mozorrotutako kuadrillen kalejira lehiaketa bat antolatu du aurtengo ediziorako.

Lehiaketan parte-hartzeko oinarriak honako hauek dira:

Lehena. Noiz.

Kalejira 2026ko otsailaren 14an, larunbata, 12:30ean hasiko da.

Bigarrena. Parte-hartzaileak.

Gutxienez 8 partaide izan beharko ditu izena eman duen taldeak.

Hirugarrena. Parte-hartzaileen adina.

Adin guztietako pertsonak parte hartu dezakete.

Laugarrena. Gaia eta mozorroak.

Mozorroen gaia librea izango da, taldekideek aukeratuko dute.
Taldekide guztien mozorroek lotura zuzena izango dute gaiarekin.

Bostgarrena. Izen ematea.

Izena emateko epea **2026ko otsailaren 2an** hasiko da.

Lehiaketan parte hartzeko izen-emateak:

- Elektronikoki: kultura@udalermua.net
- Lobiano Kulturgunera bertara joanez (Goienkale 10)
- Orbe Kardinala plazan ekitaldiaren egunean antolatzaileek ipiniko duen mahaian, kalejira hasi baino hamar minutu lehenagora arte (12:15ean).

Izena emateko, **eskatzailearen datuak, kuadrillaren izena, mozorroaren gaia eta kuadrillaren partaide-kopurua** adierazi beharko dira.

Seigarrena. Ibilbidea.

Kalejira 12:30ean hasiko da Zubiaurre kaleko 24an. Ibilbidea honako hau izango da: Zubiaurre, Marqués de Valdespina, Erdikokale, Probaleku eta Orbe Kardinala plaza.

Izena ematen duten taldeek ibilbide guztia egin beharko dute.

Zazpigarrena. Kalejira.

Kalejira hasi baino hamar minutu aurretik (12:20an) taldeko arduradun bat (bakarrik bat) Orbe Kardinale plazan egongo den antolatzaileen mahaira etorriko da kalejiran eramateko zenbakia jasotzera. Identifikazio-zenbaki horrek taldeak kalejiran izango duen ordena adieraziko du.

Zenbaki hori agerian eraman beharko da ibilbide osoan zehar. Partaideek antolakuntzak emandako jarraibideak hertsiki jarraitu beharko dituzte une oro.

Zortzigarrena. Balorazio irizpideak.

Mozorroak taldekideek eginak izatea baloratuko da, bai eta instrumentu, tresna edota tramankuluek aukeratutako gaiarekin lotura zuzena izatea ere.

Kalejiraren ibilbidean aukeratutako gaiarekin zerikusi zuzena duten dantza, abesti, koreografia, musika zein bestelakoak burutzea ere baloratuko da.

Epaimahai-kide bakoitzak hurrengo taulan azaltzen diren balorazio-irizpideak puntuatuko ditu 1etik 5era:

Balorazio-irizpideak	1	2	3	4	5
Gaia					
Mozorroen diseinua eta nola eginda dagoen					
Animazioa kalejiran zehar, abestiak, antzerki-izaera, koreografiak,					
Tresna, tramankulu edo karrozak					

Bederatzigarrena. Kalejira bertan behera uztea

Aipaturiko data izango da kalejira egingo den egun bakarra, eta egun horretan, eguraldiarengatik edota ezinbestez bertan behera utzi beharko balitz, ez litzake inola ere beste egun batera aldatuko.

Hamargarrena. Informazioa.

Arau hauen inguruan edozein zalantza izanez gero, helbide honetan izango duzue argitzeko aukera: Lobiano Kulturgunea. Kultura saila. 943 70 87 00 telefono zenbakian..

Hamaikagarrena. Epaimahaikideen erabakia eta saria.

Bi sari egongo da:

Lehenengoa: Ermua Antzokiaren programazioko ikuskizun batera joateko sarrera bana emango zaie kuadrilla irabazlearen kide guztiei, eta herriko jatetxe batean bazkari bat guztientzat. Ikuskizuna Ermuko Udaleko kultura sailak aukeratuko du.

Bigarrena: Ermua Antzokiaren programazioko ikuskizun batera joateko sarrera bana emango zaie kuadrilla irabazlearen kide guztiei. Ikuskizuna Ermuko Udaleko kultura sailak aukeratuko du.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

INAUTERIETAKO LEHIAKETA / CONCURSO CARNAVAL

Oinarriak / Bases

[Código]/[Edición]

HOJA 2.

Epaimahaikideen erabakia 2026ko otsailaren 14an bertan 19:30ean emango da jakitera Orbe Kardinalaren plazan izango den haurrentzako mozorro-lehiaketaren ondoren.

Irabazleek eszenatokian jasoko dute saria.

Hamabigarrena. Oinarrien onarpena.

Lehiaketa honetan izena emateak bai oinarriak bai epaimahaikideen erabakia onartzea suposatzen du.

Halaber, Epaimahaiak lehiaketa hutsal deklaratu dezake eta saririk eman ez.